


GUKA

BONAK

2024



Gabonetan OPARITU TOKIKO INFORMAZIOA



oparitu Guka

Orain harpidetza digitala ere
eskuragarri, urtean 52€

bazkide@ukt.eus



Gabonetako piezak entzungai dira berriro, plazako erlojuan

Gabon sasoian, karilloi erlojuak hainbat kanta eskaintzen ditu 2022az geroztik. Herria eta kaleak alaitzeko eta herritarrek erosketak herrian egitera bultzatzeko jarri zuten martxan.

Karilloia afinatutako kanpai multzoa da, eta entzumen elementu bereizgarri bat gehitzen die era horretarako erlojuei. Orduero, ordu erdiro edo ordu laurdenero, erlojuaren konfigurazioaren arabera, kanpaiek melodia bakarrarekin egiten dute durundi.

Mundu osoan zehar gutxi dira horrelako erlojuak. Ezagunena, agian, Municheko (Alemania) udaletxekoa da. Urola Kostara

etorri gero, are gutxiago dira. Baina eskualdean bada bat: Azkoitiko Azoka Plazako erlojua.

Urteetan isilduta egon ondoren, 2022an jarri zuten abian Azkoitiko plazako erlojua, Gabon kanta desberdinak eskainiz: *Hator*, *hator* eta *Gaeko izar* izan ziren lehenbizikoak. Iaz, berriz, *Jesus jaio da* abestia eta *Abenduko hilaren 24* eta *Olentzero* piezen nahasketa bat eskaini zituen karilloiak.

«Gabon garaian herria eta kaleak alaitu eta erosketak herrian bertan egitera bultzatzeko jarri zen abian erlojua. Herritarren artean izan zuen arrakasta ikusita, urtero martxan jartzea erabaki zen, abesti desberdinak eskainiz; Gabon kanta ezagunenak jartzen saiatzen gara», azaldu du Juan Bautista Mendizabal zinegotziak. Horrela, aste honetan hasita, doinu berriak



Azkoitiko plazako erlojua.

daude entzungai Azkoitiko kaleetan.

Herritarren doinuak

Gabonetatik kanpo ere, erlojua erabiltzen dute Azkoitian, batik bat, azkoitiarrek idatzitako kantak eskaintzeko: Poxpiren *Din Don* eta Juan Carlos Perezen *Lau Teilatu*, besteak beste. Gainera, Azkoitiaren 700. urteurreneko ekintzekin hasteko, Laja eta Landakanda trikitilarien *Azkoitiri* abestia ere entzungai jarri zuten, eta

Nemesio Etxaniz jaio zela 125 urte izana aprobetxatuz, haren *Antoni*, *Antoni* abestia ere bai.

Mundu osoan zehar gutxi dira horrelako erlojuak

Urteetan isilduta egon ondoren, 2022an jarri zuten abian plazako erlojua

Beharrezkoa den guztia, Azkoitiko merkatarien eskutik

Adin guztietako herritarrei zuzendutako hamaika ekintza eta ikuskizun antolatu dituzte udalak eta Herrixen merkatarri elkarteak datozen asteetarako. Kale ikuskizunak izango dira, baita bonuen zozketa ere.

Abenduaren 4an hasi ziren Azkoitiko kaleetako argiak pizten, Gabonei hasiera emanez. Argiak piztearekin batera, herriko merkatariek eta saltokiek daukaten eskaintza zabala aurkezteari ekin zioten, herritarrek beharrezkoa dutena edota kapritxoa baldin badute, herrian bertan eros dezaten.

Erosketa horiekin, gainera, azkoitiarrak zozketa ugaritan sartuko dira. Hala nola, gaur hogeitabi Gabon saski banatuko dituzte udaletxeko aretoan, 20:30ean hasita. Ekitaldi berean, Gabonetako erakuslehoi erakusketan parte hartu duten saltokiei aitortza egingo die erakundeak: «Ekintza horrekin, urte osoan egiten duten lana errekonozitu nahi diegu, eta,

bereziki, Gabonetan kaleei ematen dieten ukitua aitortu», adierazi dute.

Bestalde, bihar Demode Quartet taldeak *Gurpil gainean* kale ikuskizuna eskainiko du, 18:30etik aurrera, eta hilaren 27an, berriz, *Polaris* kale ikuskizun ibiltariaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek, 18:00ak iristearrekin.

500 euroko hiru sari

Erosketa egin eta beharrezko guztia eskuratzeaz gain, azkoitiarrek dirua irabazteko aukera ere izango dute Gabonetan. Abenduaren 23tik aurrera herriko saltokietan erosketak eginez gero, paper bat beren datuekin betetzeko aukera izango dute herritarrek, eta hori egiten duten



Herritarrek Kale Nagusiko saltokietako erakuslehoiak ikusten.

herritarren artean 500 euroko hiru erosketa bonu zozkatuko ditu Herrixen elkarteak.

Hiru irabazleen izenak urtarilaren 10ean jakinaraziko dituzte.



AZKOITIA
Udala

Euskadi, auzolana



Bizi, erosi, harreman-du, gozatu... Hori eta askoz gehiago herrian egin daitekeelako, Gabon hauetan ere, Azkoitia, dena nahi dugu zurekin!

Herrixen merkatarri elkartearen izenean, Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.



Jostailu egokia aukeratzearen garrantzia

Jolaserako bitartekoa edo tresna da jostailua, eta, beraz, bere helburua jolasa da. Baina jolas horrek lagungarria izan behar du haurraren garapenerako, gaitasun psikologikoen garapenerako. Izan ere, haurtzaroa bizi zikloaren aldi garrantzitsuena da.

Garai horretan, jolasa da haurraren ekintza nagusia, eta garapen integrala bermatzeko zein ikaskuntza bultzatzeko funtsezko jarduera da. Izan

ere, jolasaren bitartez, ingurunea ezagutzeaz gainera, trebetasunak garatzen ditu umeak. Hori horrela, berebiziko garrantzia du jolasen zein jostailuen aukeraketak, horiek funtzio hezitzailea duten elementuak izanik, bizi diren jendartearen arauak zein portaerak ikasten dituztelako haurrek.

Hala, adinaren arabera kontuan hartu beharreko gomendioak dituzu jarraian:

Eta gogoratu: jolasak eta jostailuak elementu naturalak dira. Beraz, ez dute sexurik. Hots, ez dago neskentzat edo mutilentzako jolasik

0 eta 6 hilabete bitartean

Umeek jan eta lo egiten dute, batik bat. Atzamarrak eta ahoa mugitzen dituzte; horregatik, oratzeko eta ukitzeko gaitasuna lantzea komeni zaie. Orokorrean, jostailu gutxi behar dituzten arren, gutxi horiek material aldetik goxoak izan behar dute: txintzarriak, telazko animaliak, haginka egitekoak...

6 eta 12 hilabete bitartean

Oratzeko eta ukitzeko gaitasunetan aurrerapausoak eman ondoren, gorputz adarraren kontrolaren hastapenetan daude haurrak. Pelutxezko animaliak, soinudun jostailuak, ispiluak, ipuin bigunak, musika kaxak... dira haientzat egokiak.

1 eta 2 urte bitartean

Mugimenduaren hastapenean daude haurrak, eta manipulazioan eta heltzeko gaitasunean pausoak ematen hasita ere bai. Komunikatzeko gaitasuna ere lantzen hastear dira, baita helduekin harremana izaten hasten ere. Aire librean jolastu eta mugikortasuna landu behar dute, eta horretarako jostailu aproposak dituzte: pedalik gabeko trizikloak, 2-5 pieza arteko eraikuntza jostailuak, autoak, soinudun ipuinak...

2 eta 3 urte bitartean

Autonomiaren garapena eta espazioaren erabilera lantzeko garaia dute umeek, eta beste haurrekin jolasten hasten dira. Era berean, jolas sinbolikoen hastapenetan daude. Egunerokotasunean oinarritutako jolasak, pilotak, eraikuntza jostailuak, margoak, arbelak, musika tresnak... dira etapa horretarako jostailuak.

3 eta 8 urte bitartean

Gaitasun motoreen kontrola zehazten hasten dira umeak, eta jolas sinbolikoetan bete-beterik murgiltzen. Beste haurrekin jolasten dute erabat, eta eraikuntza jolasak garrantzi handia dute; izan ere, ordena edota orientazio espaziala kontrolatzeko balio diete horiek. Etxetxoak, sukaldetxoak, puzzleak, arau jolasak, kometak, zirkuituak... egokiak dira horientzat.



URDAIRA

Sagardotegia

ZATOZ DASTATZERA!

☎ 943-37 26 91

📍 AGINAGA

* Astelehenak itxita

📱 info@urdairasagardotegia.com | www.urdairasagardotegia.com



Zarauzko ikusgarri bihurtu den jaiotza

Abenduaren 7an zabaldu zituen atea Narrosko jaiotzak. Schola Cantorumek kudeatzen duen jaiotza Errege Egunera arte egongo da zabalik, egunero, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Zerbait klasikoa baldin bada Zarautzen, Gabonetako Narrosko jaiotza da hori. 60 urtetik gorako ohitura izanik, ezinbesteko bisita bihurtu da zarauztarrentzat eta inguruko herritarrentzat. 1961etik Narros jauregiaren parkean jartzen dute jaiotza, eta urtero-urtero, bisitari ugari joaten dira hara.

Horren guztiaren atzean, ordea, Schola Cantorum parrokiako abesbatzako kideen lana dago. Aurten, abenduaren 7an zabaldu zituzten jaiotza-ateak, eta Errege Egunera

arte egongo da zabalik, egunero, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Urte guztiko lana eskatzen du jaiotza abenduan prest izateak. Urtean zehar Abendañon Zarauzko Udalak utzitako lokal batean gordetzen dituzte jaiotza osatzen duten piezak, eta konponketak, berrikuntzak edota apainketak egiten dizkiete haiei.

Eguraldiaren menpe

Ikusgarria bada ere, neketsua da Narrosko jaiotza txukun mantentzea. Izan ere, piezak aire librean egoten direnez,

eta negua izanik, eguraldiaren eragina handia izaten dela dio Ibon Linazisoro arduradunak: «Abenduan, jaiotza ireki berritan, haizete bortitzak izan ziren. Pieza asko erori egin ziren, eta horietako batzuk puskatu. Haizete haren ondorioz, gainera, bi egunez itxi behar izan genuen Narros jauregia, eta beraz, jaiotza». Besteak beste, errota eroriz haizearekin, eta hegalak apurtu zitzaizkion pieza horri. Apurtutako figura Iruñera bidali behar izan zuten konpontzera. «Gauza batzuk guk konpontzen ditugun arren,

kasu horretan Iruñera bidali behar izan genuen. Duela hamar urte 75 pertsona ginen elkarteak, eta horien artean arotzak, margolariak... zeuden. Orduan aukera gehiago izaten genuen konponketak edota bestelako lanak geuk egiteko. Gaur egun, baina, desberdina da egoera. Hala ere, eskerrak udalak figurak erosteko dirua ematen digun eta horrekin lana egin ahal izaten dugun», gaineratu du. Herritarrek eskaintzen dieten laguntza ere eskertu du Linazisorok: «Narrosko jaiotza auzolanaren fruitua da. Hala-korik ezean, ezingo genukeen aurrera atera, taldea osatzen dugun 25 lagunetatik gehienak oso helduak baitira».

Zailtasunak zailtasun, bisitari ugari jasotzen dituen jaiotza da Narroskoa. «Urtez urte horien kopurua igotzen ari da, Zarauzko eta inguruetako Gabonetako erakargarri nagusienetakoa baita. Jaiotzako hainbat pieza, gainera, aspaldikoak dira; gaiteroa, adibidez, duela 50 urtekoa da, artisau lana guztiz».

Ekintza ugari Zarauzko Gabonetako egitarauan

Murkil merkatarien elkarteak egitasmo ugari prestatu ditu zarauztarrek erosketak herrian egin ditzaten.

Gabon giroa senti eta usaindu daiteke Zarauzko kaleetan. Abenduaren hasieratik, Murkil elkarteak herria apaintzeko eta girotzeko hainbat ekintza egin ditu. Gabonetako argiek herriko plazak eta kaleak koloreztatu dituzte dagoeneko, eta bideo bat ere argitaratu du elkarteak zarauztarrek erosketak herrian egitera animatzeko xedez. Gainera, hala nahi izan duten denden artean zuhaitzak eta lanpasa edo alfonbratxo gorriak banatu dituzte, horiek saltokietako sarreretan jar ditzaten.

Bestalde, abenduaren 24ra bitartean egiten dituzten erosketen trukean txartelak banatuko dizkiete bezeroei, eta herritarrek, horiek beteta, askotariko zozketetan parte hartu ahal izango dute: 500 euroko bi erosketa txartel, 200 euroko lau txartel, 20 errege-opil eta Zarauzko dendetako produktuekin osatutako lau saski zozkatuko dituzte. Azkenik, Zarauzko Udalak, Turismo sailaren bitartez eta Murkil laguntzaz, erakusleihen lehiaketa antolatzen du Gabon giroa sustatzeko. Egitasmoan parte hartu duten saltokietako erakusleihen urtarilaren 6ra arte egongo dira apainduta. Lehiaketaren irabazleak orri-garria eta 800 euro jasoko ditu, bigarren saridunak 500 euro, eta hirugarrenak, 300 euro.



Bisitariak Narrosko jaiotza ikusten.

Gabonetako Zozketa

Abenduak 2-24

20
Errege-Opil

Erosketa txeke

2 * 500 €

4 * 200 €

4 Saski

@murkil_comercio_zarautz

MURKIL
Zarauzko Dendarien elkarteak
www.murkil.com

Euskadi, auzolana, bien común

TURISMO, MERKATARIETZA
ETA HONDEKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



2024
GABONAK

JARRAITU
GABONAK
GURE WEBETAN

Gabonei lotutako
informazio berezia

Kirol eta kultur
ekitaldiak

Otorduetarako
errezetak

Gabon kantak

GUKA

Zumaiako erakusleiho lehiaketak inoizko parte hartze handiena izan du

Lehiaketan 27 saltokik eman dute izena, eta irabazleen izenak bihar, ostirala, jakinaraziko ditu Gertu merkatari elkarteak.

Herrian Gabon giroa sustatzeko, merkatariak eta ostalariak saltokien eta tabernen erakusleihoak apaintzera bultzatu nahi izan ditu aurten ere Gertu elkarteak, eta horretarako, erakusleiho lehiaketa antolatu du. Bi berrikuntza ditu aurtengo edizioak: batetik, lehenengoz, aditu bat izango da epaimahaiko kide; eta bestetik, atal gehiago izango ditu sariketarik eta bost sari banatu dituzte.

Abenduaren 9an itxi zuten izena emateko epea, eta

inoizko handiena izan da parte hartzea: 27 saltokik eta tabernak eman dute izena. Honako hauek dira: Brewery Landa garagardotegia, Miren ile apaindegia, Creados diseinu grafikoa, Odriozola ardoak, Mao arte estudioa, Bib ehundegia, Loa Man arropa denda, Koketa jantzi denda, Rakel estetika zentroa, Larraitz ile apaindegia, Iriondo optika, Amalur jostailu denda, Olga ile apaindegia, Ukendu parabolotika, Otaño farmazia eta optika, Coro estetika zentroa, Bqd bidaia agentzia, Olaia-Enea ile apaindegia, Edu op-

tika, Ane Arribas boutiquea, Loa Woman arropa denda, Blue Nails manikura zentroa, Loa Lingerie barruko arropen denda, Kaioa arropa denda, Txera manikura zentroa, Xanti altzari denda eta Kiribil ile apaindegia.

Irabazleen izenak bihar, ostirala, jakinarazi dituzte. Irabazleak 300 euroko balioa duen erosketa txartela jasoko du, eta 100 euroko txartel bana jasoko dute erakuslehi originalenak, koloretsuenak, ondoen argizatutakoak eta Gabonak egokien islatzen dituenak.

Ezagutzen al duzu Gomezago?

Zumaiako pertsonaia bat da Gomezago, Olentzeroren antzerakoa, baina arrantzalea. Abenduaren 24an etortzen da herrira, eta Olentzerorekin arranplan elkartzen da, gero umeengana joateko.

Gomezago Zumaiako pertsonaia imajinarioa da, Olentzeroren antzerakoa, baina arrantzalea. Abesti propioa ere badu eta, garai batean, herriko tabernetan, abesti hori kantatzeko ohitura zuten; amaieran, tabernariak intxaurrek-eta botatzen zizkieten kantari joaten zirenei.

Gomezago buru handi noiz harrapatuko dekarrairi hori, bart arratseko ordubietan itsasoaren erdian.

XX. mendearen hasieran, Zumaiako umeek eta gazteek bazuten bes-

te ohitura bat ere: etxez etxe joaten ziren kantari, eta trukean, laranjak eta dirua ematen zizkieten. Era berean, bazkalostean, 14:00 aldera, Goiko Plazara joaten ziren, eta han egoten ziren kanpandorreko kanpaien soinua entzuteko eta Gomezagoren zain egoteko.

Aurten ere izango da

Orain ere bada Gomezago ezagutzeko aukerarik. Batetik, Zumaiena ikastetxeko Baso Magikoko bisitetan haren gorabeherak kontatzen dituzte, eta bestetik, urtero hilaren 24an, arratsaldez, Olentzerorekin arranplan elkartzen da, handik Amaia plazara joateko haurrekin argazkiak ateratzera.





Berrikuntzekin datoz Gabonak Azpeitian

Gabon garaiko egunei «bizia emateko», izotz pista jarriko dute Done Jakue kalean; hilaren 28rako, berriz, Gabon Azoka antolatu dute Bertan merkatarien elkarteak eta Artiekin artisauenak.

Gabonak iristear dira, eta Azpeitian, ekitaldiz jositako egunak espero dituzte aurretik. Jarduera ugari antolatu dituzte udalak zein herriko eragileek, baina, guztien artean, badira bi berrikuntza nagusi: izotz pista eta azoka berezia. Biak ala biak Bertan merkatari elkarteak prestatu ditu herritarrentzat, «Gabonetako egunei bizia emateko, herriko merkataritza sustatzeko eta giro atsegina sortzeko» asmoz. Izotz pista zein azokak, biek Done Jakue kalea izango dute kokaleku.

Frontoi Txikiaren alboan jarriko duten izotz pistaren atea abenduaren 23an zabalduko dituzte, eta urtarrilaren 6an itxiko. Egunero egongo da irekita, 11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara, eta hiru euroren truke, hogei minutuz izotz gainean irristaka ibiltzeko aukera izango dute herritarrek zein bisitariek. Jarduera inklusiboa eta irisgarria izan dadin, patinatze laguntza elementuak eta oreka mantentzea errazten duten euska-

riak eskuragarri egongo dira behar dituenarentzat, eta nola ez, baita patinak ere.

Artisauekin batera

Abenduaren 28an, berriz, Gabon Azoka berezia egingo dute Bertanen eta Artiekin Azpeitiko artisauen elkartearen ekimenez. Azoka horretan herriko merkatariak eta artisauak parte hartuko dute; hamasei postu jarriko dituzte denera, Done Jakue kalean, Frontoi Txikitik herriko plazara arteko gunean. «Herritarrek Eguberrietako opariak erosten dituzten bitartean bertako ekonomiarik bultzada emateko aukera paregabea izango dute», azaldu dute antolatzaileak.

Gabon Azoka 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta bi helburu izango ditu: batetik, tokiko merkataritza bultzatzea; eta bestetik, inguruko ekoizleei eta merkatariak bultzatzea. «Gabon garaiko azoka izanda, herriko merkatariak eta artisauak ahalgin berezia egingo dute beren postuak egoki apaintzeko, eta ziur gaude giro polita sortuko dela».

Azkenik, urtarrilaren 2an eta 3an, haurrek jolaserako aukera izango dute Frontoi Txikian, Kids&Us-en eskutik. 16:30etik 20:00etara bitartean, urtebete eta zortzi urte arteko umeei zuzendutako hainbat ekintza egingo dituzte: zankoak, plater txinatarrak, malabareak, bolen parkea, punteria jokoak,

Izotz pista urtarrilaren 6ra arte egunero egongo da zabalik

Hamasei postu jarriko dituzte Frontoi Txikitik plazara bidean

eskulanak... Jolas horietan parte hartzen duten haurren artean bizikleta bat zozkatuko dute, gainera.

Horrez gain, urtarrilaren 2an, 19:00etan hasita, antzerki emanaldia izango da Frontoi Txikian; eta urtarrilaren 3an, toki eta ordu berean, *Family Bingo* jolasa egingo dute.



Frontoi Txikiaren ondoan jarri dute izotz pista.

LEIHOAK.com
eta toldoak

leiho eta toldoen erakusketa

Zelai Ondo 23, ZARAUTZ
943-00 22 75 · 619 43 20 79
www.leihoak.com · leihoak@leihoak.com

Etxeko platerak, amonarenak, zuretzat beti prest, Batela prest-en

BATELA prest.

Geltoki bidea, 7 Zarautz
T 943-84 01 40
M 673 38 18 40
@ batelaprest@gmail.com

BODEGA K5

Gabon zoriontsuak izan!

Adicto.bike

%10 deskontua

KODEA: GABONAK

BIZKAIA KALEA 63, ZARAUTZ

KATTALIN

Ezkontza-eraztunak, konpromiso eraztunak, bitxiak, erlojuak, osagarriak ...

Araba kalea 41, Zarautz
943-13 45 04 · 679 61 28 96



2024 Gabonak

Zumaiako Merkatariak

ZOZKETA BEREZIA
ABENDUAREN 12TIK 31RA



10
urdaiazpiko
+ ardo
botila 1

900€

300€-tako
3 bono
zozketatuko
dira



GERTU
ZUMAIKO MERKATARI & OSTALARI ELKARTEA

Zumaiako
Udala

**ZUMAI
BIZITZEKO
DA**

Euskadi, azolana, bizi comin

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO